**Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN**

**38/2023 TXOSTENA**

**Gaia:** Bizkaiko Foru Aldundiko ogasun eta finantza sailaren eta Bermeoko Udalaren arteko zuzenbide publikoko sarrerak nahitaezko prozeduraren bitartez biltzeko delegazioa onartzea eta hitzarmena sinatzea onartzea.

**Espediente zenbakia:**

**Espediente tramitatzailea:** Diruzaintza

**Txostenaren oinarria:** Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.c artikulua.

## Aurrekariak

**Lehena.-** 2023ko uztailaren 21ean udal diruzainak Bizkaiko Foru Aldundiko ogasun eta finantza sailaren eta Bermeoko Udalaren arteko zuzenbide publikoko sarrerak nahitaezko prozeduraren bitartez biltzeko delegazioa onartzeko eta hitzarmena sinatzea onartzeko memoria justifikatzailea, erabaki proposamena eta hitzarmenaren zirriborroa egin ditu.

**Bigarrena.-** 2023ko uztailaren 21ean udal kontuhartzaileak aldeko fiskalizazio txostena egin du.

## Oinarri juridikoak

### Aplikagarria den araudia

- Martxoaren 10eko 2/2005 Foru-Araua Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa.
- Abenduaren 16ko 9/2005 Foru Araua Toki Ogasunei buruzko.

Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010 idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

CSV: 07E7000D1BF500L2C8O2P2E1L2

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000D1BF500L2C8O2P2E1L2

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 21/07/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/07/2023 14:15:47

EXPEDIENTE :: 2023IDA_ERA_0114
Datea: 21/07/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Abenduaren 27ko 215/2005 Foru Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketaren Araudia onesten duena.
- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena
- Urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoko Araubide Juridikoa onartzen duena.
- Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

**Azterketa juridikoa**

Abenduaren 27ko 215/2005 Foru Dekretuak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketaren Araudia onesten duenak, 2.2. artikuluan zera jaso du: "Ogasun eta Finantza Sailak bere gain hartu ahal izango du beste administrazio edo izaki publiko batzuen baliabideen bilketa, behar diren hitzarmenak formalizatuz. Halaber, legeek edo foru arauek ezartzen dituzten beste herri administrazio batzuen berezko zerga-bilketako lankidetza-jarduketak burutuko ditu."

Gainera, martxoaren 10eko 2/2005 Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru-Arauaren 5.5. artikuluaren arabera: "Foru Aldundia gainerako zerga administrazioekin lankidetzan ariko da zergak ordenamendu juridikoan ezarritakoaren arabera aplikatzeko. Halaber, toki-entitateen arteko eta hauen eta Foru Aldundiaren arteko lankidetzak ezarri ahal izango dira zergak aplikatzeko."
Zentzu berean, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauko 8.1 artikuluan hauxe ezarri da: "Toki erakundeek eta foru aldundiak elkarlanean jardungo dute, berariazko hitzarmena sinaturik, tributuen eta zuzenbide publikoko gainerako sarreren aplikazioari dagokion guztian".

Diruzainak 2023ko uztailaren 21ean Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzarmena sinatzearen aldeko justifikazio memoria egin du, hurrengoa jasoz, besteak beste: "hitzarmenaren xedea beharrezkotzat eta egokitzat jotzen da arlo honen helburuak betetzeko eta gauzatzeko".

Delegazioa araututa dago 40/2015 legeko 9.artikuluan, zeinek dioen: .



CSV: 07E7000D1BF500L2C8O2P2E1L2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E7000D1BF500L2C8O2P2E1L2 | Sinadurea eta datea<br>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 21/07/2023<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/07/2023 14:15:47 | EXPEDIENTE :: 2023IDA_ERA_0114<br>Datea: 21/07/2023<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

"1. Los órganos de las diferentes Administraciones Públicas podrán delegar el ejercicio de las competencias que tengan atribuidas en otros órganos de la misma Administración, aun cuando no sean jerárquicamente dependientes, o en los Organismos públicos o Entidades de Derecho Público vinculados o dependientes de aquéllas.

…

2. En ningún caso podrán ser objeto de delegación las competencias relativas a:

a) Los asuntos que se refieran a relaciones con la Jefatura del Estado, la Presidencia del Gobierno de la Nación, las Cortes Generales, las Presidencias de los Consejos de Gobierno de las Comunidades Autónomas y las Asambleas Legislativas de las Comunidades Autónomas.

b) La adopción de disposiciones de carácter general.

c) La resolución de recursos en los órganos administrativos que hayan dictado los actos objeto de recurso.

d) Las materias en que así se determine por norma con rango de Ley.

3. Las delegaciones de competencias y su revocación deberán publicarse en el «Boletín Oficial del Estado», en el de la Comunidad Autónoma o en el de la Provincia, según la Administración a que pertenezca el órgano delegante, y el ámbito territorial de competencia de éste.

4. Las resoluciones administrativas que se adopten por delegación indicarán expresamente esta circunstancia y se considerarán dictadas por el órgano delegante.

5. Salvo autorización expresa de una Ley, no podrán delegarse las competencias que se ejerzan por delegación.

No constituye impedimento para que pueda delegarse la competencia para resolver un procedimiento la circunstancia de que la norma reguladora del mismo



CSV: 07E7000D1BF500L2C8O2P2E1L2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.<br>Kodea:<br>07E7000D1BF500L2C8O2P2E1L2 | Sinadurea eta datea<br>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 21/07/2023<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/07/2023 14:15:47 | EXPEDIENTE :: 2023IDA_ERA_0114<br>Datea: 21/07/2023<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

prevea, como trámite preceptivo, la emisión de un dictamen o informe; no obstante, no podrá delegarse la competencia para resolver un procedimiento una vez que en el correspondiente procedimiento se haya emitido un dictamen o informe preceptivo acerca del mismo.

6. La delegación será revocable en cualquier momento por el órgano que la haya conferido.

7. El acuerdo de delegación de aquellas competencias atribuidas a órganos colegiados, para cuyo ejercicio se requiera un quórum o mayoría especial, deberá adoptarse observando, en todo caso, dicho quórum o mayoría."

Izan ere, Eskumenak eskuordetzan emateak ez du eskumenaren titulartasuna aldatzen, baina bai eskumen hori baliatzeko kasu bakoitzean aurreikusten diren elementu erabakigarriak.

Bizkaiko Foru Aldundiarekin delegazioa formalizatzeko hitzarmen zirriborroa aztertuta hurrengoa ondorioztatzen da:

- Hitzarmenaren helburua da Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak Bermeoko Udalak hartzeko dituen Zuzenbide Publikoko sarrera batzuk ordainarazteko prozeduraren bidez biltzeko lanen kudeaketa hartu du, eskuordetza dela bide.
- Hitzarmenaren edukia ikusita, Bermeoko Udalaren eta Ogasun eta Finantza Sailaren egitekoak zehaztu dira.
- Hitzarmen honen ondorioz burutuko den zerbitzuaren kostua biltzen den zenbateko garbiaren %5 izango da.
- Hitzarmenaren indarraldiari dagokionez, hurrengoa jaso da: "Hitzarmen hau sinatu ondoko egunetik urtebetez egongo da indarrean. Epe hori bukatu eta berehala indarraldia urtetik urtera luzatuko da isilbidez. Alderdi biek salatu ahal izango dute hitzarmena. Hala gertatuz gero, salaketa aurkezten denetik hilabete pasatutakoan hitzarmena azkenduko da."

CSV: 07E7000D1BF500L2C8O2P2E1L2

Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010 idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000D1BF500L2C8O2P2E1L2

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 21/07/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/07/2023 14:15:47

EXPEDIENTE :: 2023IDA_ERA_0114
Datea: 21/07/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Kontuan izan behar da eskuordetzan edozein momentutan erreboka dezakeela Bermeoko Udalak.

**Prozedura**

Prozedurari dagokionez, hurrengo pausuak bete beharko dira:

- Justifikatu beharko da hitzarmenaren beharrizana eta onurak (antolakuntzan, ekonomikoki edo teknikoki).

Diruzainak 2023ko uztailaren 21ean justifikazio memoria egin du.

- Proposamena eta hitzarmen zirriborroa beharko da

Diruzainak 2023ko uztailaren 21ean erabaki proposamena eta hitzarmen zirriborroa prestatu ditu.

- Eragin ekonomikoa daukanez, kontuhartzailearen aldeko fiskalizazio txostena jaso da espedientean.
- Idazkari nagusiaren txostena beharko da
- Informazio Batzordearen irizpena beharko da.
- Akordioa Osoko Bilkurak hartu beharko du, gehiengo osoz, 7/1985 Legearen 47.2.h artikuluaren arabera.
- Akordioa hartuta, Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazi beharko zaio.
- Hitzarmena idazkariaren aurrean formalizatu beharko da.
- Behin formalizazioa eginda, hitzarmena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

**Ondorioak**

Espediente adostasunez informatzen da.



CSV: 07E7000D1BF500L2C8O2P2E1L2

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea: 07E7000D1BF500L2C8O2P2E1L2

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 21/07/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/07/2023 14:15:47

EXPEDIENTE :: 2023IDA_ERA_0114
Datea: 21/07/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Izan ere, txosten hau ez da loteslea eta Osoko Bilkurak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, orri oinean zehaztutako datan

Jurdana Uriarte Lejarraga

Idazkari nagusia

CSV: 07E7000D1BF500L2C8O2P2E1L2




| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E7000D1BF500L2C8O2P2E1L2 | Sinadurea eta datea | EXPEDIENTE :: 2023IDA_ERA_0114 |
|---|---|---|
| | JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 21/07/2023<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/07/2023 14:15:47 | Datea: 21/07/2023<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |